

Oharra:

- **Ordenantza Fiskal Orokorren onespina: NAO 105- 2004ko irailaren 1a.**

- **Eranskinaren onespina: NAO 102, 2007ko abuztuaren 17a.**

ORDENANTZA FISKAL OROKORRA BEHIN BETIKOZ ONETSIRIK

Aurizko Udalak, 2004ko maiatzaren 18an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen bere Ordenantza fiskal orokorra.

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean egon da eta epe horretan inork ez duenez erreklamazio, ohar edo kexarik aurkeztu, behin betikoz onetsizat jotzen da ordenantza hori.

Aurrekoaren ondorioz baita aipatu Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoaren ondorioz ere, argitara ematen da ordenantza horren testu osoa, indarra har dezan.

ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

Oinarria

Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (1995eko 36. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALa, martxokoa) xedatzen duenari jarraituz ezarri da.

I. KAPITULUA

Oinarri orokorrak

1. artikulua. Honako ordenantza fiskal orokor honen xedea da udalerrri honetako zerga araubidea osatzen duten ordainarazpen guztiendako arauak eta oinarri orokorrak finkatzea.

Ordenantza honen arauak ordenantza partikularren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten guztian.

2. artikulua. Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta honako honek ere agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko obligazioa guztiena da, eta obligazio horrek zerga-eskubide eta betebeharrak izan ditzaketen pertsona fisiko eta juridiko guztiak edo nortasun juridikorik gabeko subjektuak hartzen ditu bere esparruan, betiere, berdintasun eta ahalmen ekonomikoaren oinarriak aintzat hartuz (2/1995 Foru Legearen 56.a artikulua).

3. artikulua. Aurizko Udalak onetsitako ordenantza fiskalek Udaleko mugape osoan izanen dute indarra, eta ezin izanen da kargarik ezarri entitate zerga-ordainarazlearen lurraldetik kanpo egindako negozio, egintza edo gertaerengatik (2/1995 Foru Legearen 56.b artikulua).

4. artikulua. Udal honek ordainarazten dituen toki-tributuen subjektu pasiboek behar bezalako frogabidez hornituriko kontsultak egiten ahal dizkiote Udalari, kasu bakoitzean dagokien tributu arloko araubide, sailkapen edo kalifikazioari buruz.

Erantzunak informazio soilaren balioa izanen du eta ez egintza administratiboarena, eta ez dio loturarik ezarriko Administrazioari.

Hala ere, bere kontsulta egin ondoren, eskudun organoaren erantzunak dioenaren arabera bere tributu arloko betebeharrak betetzen dituen subjektu pasiboak ez du erantzukizunik izanen, baldin eta 2/1995 Foru Legearen 63.3. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen badira.

Interesatuak ezin izanen dute inolako errekurtsorik aurkeztu kontsulta baten erantzunaren aurka, nahiz eta gero erantzun horretan oinarritutako egintza administratiboaren aurka egitea zilegi izanen duten (2/1995 Foru Legeko 63.4 artikulua).

5. artikulua. Udal honek indarrean diren ordenantza fiskalen kopiak emanen dizkie eskatzen dituztenei.

Ordenantzek beraietan ezarritako epean izanen dute indarra. Eperik ezartzen ez bada, mugarik gabeko iraupena dutela ulertuko da (2/1995 Foru Legearen 14. artikulua).

II. KAPITULUA

Zerga harremanaren elementuak

Zergapeko egintza.

6. artikulua. Zergagaia izaera juridikoa edo ekonomikoa duen betebeharra da, ordainarazpen bakoitza finkatzeko behar den ordenantzan zehaztutakoa, eta hura gauzatzeak zerga ordaintzeko obligazioa sorrarazten du.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzean zehaztuko da zergapeko egintzaren izaera, zerga ordaindu beharra zein kasutan sortzen den adierazita.

7. artikulua. Ez da analogia onartuko zergapeko egintzaren edo salbuespen edo hobariaren esparrua bere muga hertsietatik harata hedatzeko (2/1995 Foru Legearen 65. artikulua).

8. artikulua. Subjektu pasiboa.

a) Subjektu pasiboa pertsona natural edo juridikoa da, zeina, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularrari jarraikiz, zergak ordaintzera beharturik baitago, zergadun nahiz haren ordezkoko gisa.

Zergaduna pertsona natural edo juridikoa da, zeinari ordainarazpen bakoitzaren ordenantzak (2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuz) zergapeko egintzari darion tributu karga ezartzen baitio, bakarka edo bertze batzuekin batera.

Zergadunaren ordezkoa subjektu pasiboa da, zeina, ordenantzak edo legeak hala beharturik eta haren ordezk, behartuta baitago zerga betebeharraren prestazio material eta formalak betetzera.

b) Subjektu pasibotzat hartuko dira, halaber, jaraunspen jasogabeak, ondasun komunitateak eta bertze entitate batzuk, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomiko edo ondare bereizi zergagarri bat osatzen badute.

9. artikulua. Zerga erlazioaren aldaezintasuna.

Subjektu pasiboaren eta zerga betebeharraren gainerako elementuak ez dira partikularren egintza edo hitzarmenen eraginpean aldatzen ahal.

Egintza eta hitzarmen horiek ez dute eraginik izanen udal administrazioan, berekin dakartzaten ondorio juridiko-pribatuak ukatu gabe.

10. artikulua. Zerga-oinarria.

Zerga-oinarritzat hartuko da:

a) Zergapeko egintza ezarpen modulutzat kalifikatzea, tributu zorra kopuru finkotan mugatzen denean.

b) Zergapeko egintzaren kopuru, pisu edo neurri unitateen multzoa. Unitate horien gainean ezarriko da tarifa egokia, tributu zorra zehaztera iristeko.

c) Zergapeko egintzaren balorazioa diru unitatetan, Udaleko administrazioak kontuan hartutakoa. Horri buruz, eta kasu bada, indarra duen arautegiari jarraikiz behar diren murriztapenak egin ondoren, tasa egokia aplikatuko zaio tributu zorra zehaztera iristeko.

Ordainarazpenak erroldatu, matrikulatu edo erregistratu beharko dira, baldin eta, beren ezaugarriak direla medio, zergapeko egintzak jarraitutasunez gertatzen badira.

11. artikulua. Likidazio-oinarria

Likidazio-oinarritzat hartuko da zerga-oinarrian eginiko murrizketen emaitza. Murrizketa horiek kasuan kasuko ordainarazpena arautzen duen legean edo ordenantzan ezarrita daudenak dira.

12. artikulua. Karga-tasa.

Karga-tasatzat hartuko dira likidazio oinarriari kuota zehazteko aplikatzen zaizkionak, izaeraz proportzionalak edo progresiboak izan daitezkeenak.

13. artikulua. Kuotaren zehaztapena.

Kuota honela zehaztuko da:

- a) Dagokion ordenantzan zerga-modulu gisa seinalatutako kopuru finkoaren arabera.
- b) Zerga-oinarriaren gainean aplikaturiko tarifak, ordenantza partikularretan ezarrita daudenak, haien arabera.
- c) Zerga-oinarriaren balioari dagokion karga-tasa proportzional edo progresiboa aplikatuz.
- d) Oro har, kontribuzio berezietan, ordaintzera beharturik dauden guztientzat, interes partikularrari egozten zaizkion obra eta instalazioen kostuaren ehunekoaren arabera, kuota osoa subjektu pasiboen artean nork berea ordaintzeko banatuz, dagokion ordenantzan finkatutako moduluen arabera.

14. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta Nafarroako Foru Parlamentuak onetsiak dituen edo onesten dituen gainerako arau aplikagarrietan xedatzen denari lotuko zaio.

III. KAPITULUA

Tributu zorra

15. artikulua. Tributu zorra subjektu pasiboak udal administrazioari zor dion diru kopurua da. Kopuru horretan tributu kuota sartzen da eta, hala behar denean, ondoko kontzeptuak gehitzen zaizkio:

- a) Oinarrien edo kuoten gainean legez exijitzen ahal diren errekarquak.
- b) Berandutzako korritua, legez ezarria.
- c) Gerorapen edo luzapen errekarquak.
- d) Premiamenduko errekarqua.
- e) Diru bidezko zerga-zehapenak.

Tributu zorra ordaintzeko erantzukizuna

16. artikulua. 1. Legeak tributu zorraren erantzule deklaratzeko ahal ditu, subjektu pasibo edo zordun nagusiekin batera, bertze pertsona batzuk, solidario edo subsidiarioki.

2. Kontrakorik agintzen duen legezko arau espresik izan ezean, erantzukizuna beti subsidiarioa izanen da.

3. Erantzukizuna tributu zor osoari dagokiona izanen da, zehapenak kenduta.

Premiamenduko errekarria bakarrik eskatzen ahalko zaio erantzulari, dirusarrera egiteko borondatezko epea igarotzen bada ordainketa egin gabe.

17. artikulua. Betiere, tributu zorra ordaintzera behartzeko administrazio-ekintza erantzuleei iragateko, beharrezkoa da administrazio-egintza bat, zeinean, interesatuari entzunaldia eman ondoren, erantzukizuna deklaratu eta haren zenbaterainokoa zein den zehaztuko baita.

Egintza hori jakinaraziko zaie, likidazioaren funtsezko osagaiak adieraziz, une horretatik zordun nagusiaren eskubide guztien jabe egingen direlarik.

18. artikulua. Administrazio-ekintza erantzule subsidiarioei iragateko, nahitaezkoa da alde aurretik zordun nagusiaren eta gainerako erantzule solidarioen ordainezintasuna deklaratzeko, aitorpen horren aurretik legearen barnean bidezko diren zehaztasuneko neurriak hartzea galarazi gabe.

19. artikulua. Zor baten erantzule solidario edo subsidiarioak bi edo gehiago baldin badira, zorra oso-osorik haiekiko edozeini exijitzen ahal zaio.

Tributu zorraren iraungipena

20. artikulua. Tributu zorra honela iraungiko da:

- a) Ordaindu edo bete delako.
- b) Preskripzio bidez.
- c) Egiaztatutako ordainezintasunagatik.
- d) Konpentsazio bidez.

21. artikulua. Tributu zorren ordainketa ordenantza honen 54.etik 57.era bitarteko artikuluek (biak barne) arautzen dutenaren arabera egingen da.

22. artikulua. Bortz urteren buruan preskribatuko dira ondoko eskubide eta ekintzak:

a) Subjektu pasiboen alde:

_Tributu zorra zehazteko udal administrazioak duen eskubidea, likidazio egokiaren bitartez, eta sortzapena egin zen egunetik hasita.

_Likidatutako tributu zorrak ordain daitezzen exijitzeko ekintza, borondatezko pagamendurako epea akitzen den egunetik hasita.

_Zergei buruzko arau-hausteengatik zehapenak jartzeko ekintzak, kasuko arau-hauste horiek egin ziren egunetik kontatuta.

b) Administrazioaren alde, jaso behar ez ziren sarrerak itzultzeko eskubidea, sarrera egin zen egunetik hasita.

23. artikulua. Aurreko artikulua a) atalak aipatzen dituen preskripzio epeak eten egiten dira:

_Subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean izanik, zergapeko egintza bakoitzagatik sortutako ordainarazpenaren aitortpena, arautzea, ikuskaritza, segurtasuna, egiaztapena, likidazioa eta dirubilketa erdiesteko egindako edozein ekintza administratiboren eraginez.

_Edozein motatako erreklamazio edo errekurtsioen aurkezpenaren bidez, baldin eta, udal administrazioari berari egozten ahal zaion errua dela medio, administrazio horrek ebaspenik ematen ez badu hartarako ezarritako epearen barrenean, preskripzio epea berriz ere hasiko da kontatzen aipatu epe hori iragandakotzat jotzen den unetik aurrera.

_Subjektu pasiboak tributu zorra ordaindu edo likidatzeko egiten duen edozein ekintzagatik.

Aurreko artikulua b) atalaren kasuan, preskripzio epearen etendura etorriko da dirusarrera bidegabea itzultzeko xedez subjektu pasiboak egiten duen edozein egintza fedemailerekin, edo hori hala izan dela aitortzeko udal administrazioak egiten duen edozein egintzaren bidez.

24. artikulua. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, subjektu pasiboak eskatu edo salbuespen gisa alegatu behar izan gabe.

25. artikulua. Subjektu pasiboaren eta gainerako erantzuleen ordainezintasun egiaztatua dela bide ordaindu ezin izan diren tributu zorrak behin-behinekoz iraungitzat deklaratu dira, preskripzio epearen barrenean birgaitzen ez diren bitartean. Epe horretan zorra birgaitzen ez bada, behin betiko iraungirik geldituko da.

IV. KAPITULUA

Tributuen arloko arau-hausteak eta zehapenak

Tributuen arloko arau-hausteak.

26. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen 93. artikuluari jarraikiz, tributuen arloko arau-hausteak dira lege horretan berean eta gainerako arau aplikagarrietan tipifikatzen eta zehatzen diren ekintzak.

27. artikulua. Subjektu arau-hausletzat joko dira legez arau-haustetzat hartutako ekintzak edo omisioak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta, bereziki, ondoko hauek:

a) Tributuen subjektu pasiboak, zergadunak nahiz ordezkak izan.

b) Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboen legezko ordezkaria.

c) Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazioari argibideak edo laguntza emateko obligazioa duten pertsona fisiko edo juridikoak.

28. artikulua. Legeetan arau-hauste gisa tipifikaturik dauden ekintza edo omisioetatik erantzukizunik ekarriko ez dutenak 2/1995 Foru Legearen 93. artikuluan aipatutakoak dira.

29. artikulua. Arau-hausteak soilak edo larriak izan daitezke, kontuan harturik egintza edo omisioak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 94. artikulua batzuek eta bertzeek ezartzen duen kontzeptuan sartzen diren.

Zehapenak.

30. artikulua. Arau-hausteak zigortzeko, diru bidezko isunak jarriko dira, finakoak edo proportzionalak, 2/1995 Foru Legeko 95. artikuluan xedatutakoaren arabera.

31. artikulua. 1. Arau-hauste arin bakoitzak 6tik 900 euro bitarteko zehapena izanen du.

2. Ikuskatzaileen jardunari, beren eskumenak erabiltzen ari direlarik, kontra, traba edo uko egiten bazaio, 300dik 6.000 eurora bitarteko isuna ezarriko da.

3. Tributu arloko arau-hauste larriak kuotaren zenbatekoaren % 50etik % 150era bitarteko isun proportzionalaren bidez zehatuko dira dirutan, 2/1995 Foru Legearen 97.3 artikuluan aipatzen den murrizketa deusetan ukatu gabe.

4. Zilegi izanen da berandutzako korrituak galdatzea borondatezko epea bukatu eta zerga-egoera erregularizatuko duen likidazioa egiten den egunera bitarteko denboragatik.

32. artikulua. Zehapen prozedura.

Administrazio egintzak luzatu behar dituzten organoek zehapenak erabaki eta ezarriko dituzte, interesatuari entzutea eman ondoren; administrazio egintza horietan tributuen behin-behineko edo behin betiko likidazioak eginen dira eta, betiere, behar den espedientea ireki aurretik.

33. artikulua. Tributu arloko arau-hausteen ondoriozko erantzukizunak.

1. Arau-hausteeek sortzen duten erantzukizuna zehapena ordaindu edo betetzean iraungitzen da, edo preskripzioz.

2. Subjektu arau-hausleak hiltzean, bete gabeko tributu eginbeharrak oinordeko edo legaziodunei transmitituko zaizkie, legeria zibilean herentzia eskuratzeari buruz finkatzen dena galarazi gabe. Inoiz ez zaio zehapenik bertze bati transmitituko.

3. Sozietateak edo entitateak deuseztatu eta likidatu direnean, betetzeke dituzten tributu-obligazioak bazkideei edo kapitaleko partaideei transmitituko zaizkie, eta horiek elkarrekin eta batera erantzun beharko diete obligazio horiei, esleitu zaien likidazio-kuotaren balioak zenbat jo eta horraino.

V. KAPITULUA

Kudeaketa arauak

34. artikulua. Tributuen kudeaketa honela hasiko da:

- a) Subjektu pasiboaren aitorten edo ekimenaren bidez.
- b) Ofizioz.
- c) Toki entitateen administrazio-organoen ikerketaren bidez.

Tributu aitortpena

35. artikulua. a) Tributu aitortpentzat hartuko da zergagai baten inguruabarrak edo elementuak gertatu edo sortu direla adierazi edo aitortzen duen dokumentu oro. Halaber, aitorten balioa izan den du, zergagai bat biltzen edo bere baitan hartzen duen dokumentuaren aurkezte hutsak.

b) Inondik inora ere ez da exijituko zerga aitortenak zinpean egin daitezten.

c) Aurkezteko garaian interesatuei emanen zaie aitortenaren hartu-agiria, aitortenaren kopiak ere balio duelarik horretarako.

d) Froga agiria aurkeztean, interesatuek erantzen ahal diote kopia soil bat edo fotokopiaren bat, hain zuzen ere, udal administrazioak erkatu ondoren, jatorrizkoa itzul diezaien, non ez den erabakitzen ez dela itzuli behar prozedurari buruzko behin betiko ebazpena eman baino lehen, agiria pribatua delako edo bidezkoztat jotzen den bertze arrazoiren batengatik.

36. artikulua. Aitortpena nahitaez aurkeztu beharko da ordenantza partikular bakoitzean zehaztutako epeetan, eta, bertzenaz, zergapeko egintza gertatzen den egunaren ondoko hogeita

hamar egun balioduneko epearen barrenean. Epe horietan aurkezten ez bada, arau-hauste arintzat hartuko da eta zehapena gisa hartara ezarriko.

37. artikulua. Aitorpena toki entitate honetan aurkezteak ez du esan nahi zerga bidezkoa dela ontzat eman edo onartzen dela.

Udal honek aitorpenak eska ditzake eta hauek gehitzea ere bai, eta orobat nabari diren okerrak zuzentzea, tributuen likidaziorako eta egiaztapenerako beharrezko den neurrian.

Aurreko lerroaldeak aipatzen dituen betebeharrak ez egitea arau-hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

38. artikulua. Epeak.

1. Ordenantza partikularretan adieraziko da zein izanen diren tributuko kudeaketako izapide bakoitza egiteko bete beharreko epeak. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, oro har ulertuko da ez dela sei hilabete baino gehiago izanen administrazio prozedura hasten denetik prozedura amaitzen duen ebazpenaren eguna arteko denbora; betiere hori galarazten duten behar bezala justifikatutako aparteko arrazoiak ez badira behintzat. Ikuskapenen kasuan, epe hori bi urtekoa izanen da.

2. Toki entitate honek epeak betetzen ez baditu, ez da ondorioz administrazio ekintzaren iraungipena etorriko, baina interesatuek erreklamazioa aurkezteko baimena izanen dute.

3. Izapidaketaren akatsen kontrako erreklamazioak noiznahi egiten ahal dira, bereziki, prozedura geraraztea, jarritako epeak haustea edo arazoa behin betikoz ebatzi aitzin konpon daitezkeen izapideak ez egitea dakarten kasuetan. Erreklamazioa baiesten bada, horretarako arrazoirik izanez gero, erantzukizuna duen funtzionarioaren kontrako diziplina espedientea irekitzea ekarriko du.

Egiaztapena eta ikerketa

39. artikulua. Toki Entitate honek ikertuko ditu zergapeko egintzaosatzen edo baldintzatzen duten gertakizun, egintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako inguruabarrak, eta egiaztatuko du karga-oinarriaren balorazioa.

40. artikulua. Ikerketa egiteko, subjektu pasiboaren kontabilitate nagusiko edo osagarriko dokumentuak, liburuak, fitxategiak, fakturak, frogagiriak eta idazpenak aztertuko dira; era berean, ondasunen, elementuen, ustiapenen eta tributua zehazteko beharrezko den edozein argibide-aurrekinen ikuskapena ere egingen da.

41. artikulua. Subjektu pasiboak beharturik daude kontabilitate liburuak, erregistroak eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako dokumentuak eraman eta kontserbatzera, bai eta ikuskapen lanetarako laguntza ematera ere, administrazioaren esku jarritz zergapeko egintzarekin zerikusia duten datu, txosten eta aurrekariak edo frogagiriak.

42. artikulua. Ikuskapenak subjektu pasiboendako eragin ekonomikorik baldin badakar, eginbide, jakinarazpen eta aurretiko edo behin betiko akten bidez dokumentatuko da.

43. artikulua. Salaketa.

1. Toki entitateen ikerketa salaketa bidez hasten ahal da. Salaketa erabiltzea Administrazioari laguntza emateko obligaziotik aparte dago, 2/1995 Foru Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Salatzailea ez da interesatutzat hartuko salaketaren ondorioz hasten den ikerketan, eta salatzailea den aldetik ez du eskubiderik izanen errekurtsio edo erreklamaziorik aurkezteko.

3. Nabarmenki funtsik gabeak diren salaketak bertzelako tramiterik gabe artxibatzen ahalko dira.

Tributu likidazioak

44. artikulua. 1. Zerga-oinarriak zehaztu ondoan, kudeaketak jarraituko du likidazioa eginez tributu zorra finkatzeko. Likidazioak izanen dira behin-behinekoak edo behin betikoak.

2. Behin betikoak honako hauek izanen dira:

_Zergapeko egintzaren ikerketa administratiboa egin ondoan eta karga oinarria egiaztatutakoan egindakoak, tartean behin-behineko likidaziorik izan edo ez.

_Preskripzio epearen barrenean egiaztatu ez direnak.

3. Aurreko atalean adierazitako kasuetatik aparte, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, hala kontuaren gainekoak, nola osagarriak, berme izaerakoak, partzialak nahiz osotarakoak.

45. artikulua. a) Likidazioak egiterakoan, toki entitate honek egiaztatuko ditu tributu aitortzen adierazitako egintza eta balorazio guztiak.

b) Aitorpenen emaitzaren gaineko tributu oinarria handitzen bada, jakinarazi behar da.

46. artikulua. 1. Likidazioak subjektu pasiboek jakinaraziko zaizkie, honako hauek adierazita:

a) Haien funtsezko elementuak.

b) Erabil daitezkeen inpugnazio bideak, eta zein diren haiek aurkezteko erakundeak eta horretarako epeak.

c) Tributu zorra non, noiz eta nola ordaindu behar den.

2. Jakinarazpen akastunak eragina izaten hasiko dira subjektu pasiboak jakinarazi zaiola espresuki onartzen duenean, dagokion errekurtsioa aurkezten duenean edo tributu zorraren ordainketa egiten duenean.

3. Sei hilabeteren buruan hasiko dira eragina izaten subjektu pasiboek zuzenean egindako jakinarazpenak, baldin eta haietan egintzaren testu osoa emanik, bertze baldintzaren bat aipatzen ez badute, non ez den epe horren barrenean protesta formala egiten, administrazioak akatsa zuzen dezan eskatzeko.

Zergadunen erroldak

47. artikulua. Ordenantza partikularrean berean hala zehazten den kasuetan, udal administrazioak zergadunen erroldak prestatuko ditu, interesatuen aitortpenak ikusirik, ezagutzen dituen datuen arabera eta, orobat, administrazio ikuskapenak emandakoak gehituz. Zergadunen errolda, horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta erabiliko da Udalak paratzen duen edonolako prozedura bidez, mekanikoa ere barne dela.

48. artikulua. 1. Zergadunen errolda eratu ondoan, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak onesteko, egin beharko da erreklama daitekeen administrazio egintza bat, eta subjektu pasiboek jakinarazi beharko zaizkie legeak agindu bezala.

2. Erroldan zein-nahi alta, baja edo gorabehera sor dezakeen aldaketaren berri eman beharko dio zergadunak udal administrazioari, hura gertatu ondoko hogeita hamar egun baliouduneko epearen barrenean.

49. artikulua. Zergadunen erroldek zerga gaietarako agiri balioa izanen dute, haiek erabiliko baitira zerrenda, ordainagiri eta kobrantzako bertzelako agirietan, kasuan kasuko ordainarazpena gauzatzeko.

VI. KAPITULUA

Dirubilketa

Printzipio orokorrak.

50. artikulua. Dirubilketaren kudeaketa da toki entitatearen ogasunaren ondasunak osatzen dituzten kreditu eta eskubideak gauzatzera bideratutako eginkizun administratiboa betetzea.

51. artikulua. 1. Dirubilketa bi modutan egin daiteke:

_ Borondatezko aldian.

_ Derrigorrezko aldian.

2. Borondatezko aldian ordaintzera behartuta daudenek horretarako zehaztutako epeen barrenean kitatuko dituzte beren zorrak. Derrigorrezko aldian, indarra duen legeriari atxikiz, zerga ordaindu behar duenak borondatezko aldian bere obligazioa betetzen ez badu, dirubilketa nahitaez egingen da ondarearen gaineko premiamendu bidez.

52. artikulua. Udalaren baliabideen bilketa zuzenean egingen da, diruzaintzaren bidez, halako moduan non kontu-hartzaileak zerbitzuen fiskalizazioa betetzen ahalko baitu.

53. artikulua. Tributu-zorren sailkapena, dirubilketari begira.

1. Udal agintariak eginiko likidazioen ondorioz sortzen diren tributu-zorrak, dirubilketari begira, honela sailkatuko dira: jakinarazi beharrekoak, jakinarazpenik gabekoak eta norberak likidatutakoak.

2. Jakinarazi beharrekoetan ezinbertzekoa da jakinarazpena igortzea, subjektu pasiboak tributu zorraren berri izan dezan. Hortaz, legearen arabera jakinarazpenik gabe, zorra ezin izanen da eskatu.

3. Jakinarazpenik gabeko zorrak dira banakako jakinarazpenik behar ez dutenak, zuzenean subjektu pasiboek lehendik ezagutzen dituzten zergadun erroldetatik heldu direlako, nahiz eta tributu-zorra aldian behin aldatu, dagokion ordenantzan aurretiaz zehaztutako errekaru edo tasa gehikuntzen aplikazioagatik.

4. Norberak likidatutakoetan, subjektu pasiboak, efektu tinbratuen bidez edo aitorten-likidazioa egitean, aldi berean tributu zorraren ordainketa egiten du.

54. artikulua. Ordainketa egiteko tokia:

Tributu zorrak honela ordainduko dira:

a) Jakinarazi beharrekoak, hogeita hamar egun baliouduneko epearen barrenean, jakinarazpenetik hasita.

b) Ordainagiri bitartez aldian-aldian kobratzen direnak, banakako jakinarazpenik behar ez denean, aurreko letran ezarritako epe berean, zein hiruhileko naturaletan ordaindu behar diren, harexen lehen egunetik hasita.

c) Subjektu pasiboak berak zuzenean likidatzen dituen zorrak aitortena aurkeztean ordainduko dira. Aitortpenak aurkezteko egunak edo epeak tributu bakoitza arautzen duen ordenantzan zehaztuko dira eta, halakorik ezean, zergapeko egintza gauzatzen den egunetik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita hamar egun balioudunen barnean.

55. artikulua. Ordaintzeko modua:

1. Tributu zorrak eskudirutan ordaindu behar dira honako bitarteko hauetako bat erabiliz:

- a) Legezko dirua.
- b) Posta edo telegrafo bidezko igorpena.
- c) Banku txekea.
- d) Kreditu eta aurrezki entitateetan toki entitateak horretarako irekitako kontuetan, transferentzia edo ordainketa gutunaren bidez.

2. Aurreko atalean hori ezarriagatik ere, tributu zorrak kreditu eta aurrezki entitateetan helbideratzea ere zilegi da, horrako horiek subjektu pasiboaren administratzaile lana egiten dutela, hark baimendutako zorrak ordainduz. Helbideratze horretarako betebeharrak bakarrik da toki entitateko diruzaintzari eta aurrekontu eta kreditu entitateari alde aurretik idatziz jakinaraztea helbideratze hori zein zerga kontzeptutarako den.

56. artikulua. Gerorapenak eta zatikako ordainketak.

1.1. Tributu zorra likidatzean, toki entitateak ordainketa geroratu edo zatika ordaintzeko aukera eman dezake, zergadunek hala eskatzen badute.

1.2. Tributu zorraren zatikako ordainketa, gerorapen mota bat denez, aplikatzen ahal zaizkion xedapenei jarraituz egiten da.

1.3. Oro har, geroratu diren zorrek beren epeburua pasa eta biharamunetik aurrera eta emandako geroratze edo zatikatze epeak bukatu arte, berandutzako korritua sortuko dute, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 50. artikulua aipatzen duena.

Aplikatzeko tasa, eskabidea aurkezten denean indarra duena izanen da eta ez da aldatuko baimenduriko gerorapen edo zatikakoa osorik kitatu arte.

2. Ez dira geroratzen ahal:

a) Zorrak, ordainarazteko ordainagiria edo patentea erabili behar bada.

b) Zorrak, haien zenbatekoen dirusarrera ordezkioek eta atxikipen bidez egin behar badute.

3.1. Geroratzea edo zatikatzea eskatzeko zer baldintza behar diren, haien erdiesteko zer jardunbide segitu behar den, Aurizko Udalak zer berme eta bertzelako baldintzari iritzi dien beharrezko, hori dena, udal aurrekontuak betearazteko oinarrietan jasoko da.

3.2. Osagarri gisa, arau hauek aplikatuko dira gerorapenak edo zatikako ordainketak onartzerakoan:

a) Gerorapenaren edo zatikako ordainketaren epea ez da bostz urte baino luzeagoa izanen.

b) Eskatzaileak bermea eskainiko du, kreditu edo aurrezki entitatearen abal solidarioa erabiliz, eta eskariarekin batean entitatearen konpromisoa ere aurkeztu beharko da gerorapena onartuz gero abala formalizatzeko.

c) Bermeak betiere zorraren zenbatekoa eta berandutzako korrituen zenbatekoa estaliko du, gehi bi zenbateko horien baturaren ehuneko 25.

d) Abalaren bidez eraturiko bermea kasuan kasuko epeburua baino hiru hilabete gehiagorako izanen da.

e) Emandako epea bururatu eta itzulpena gauzaten ez bada, zorra premiamendu bidez ordainaraziko da, froga gehiagorik gabe.

f) Epea bururatuta ordainketa egiten ez bada, bururatutzat joko dira geroago onartu diren guztiak ere, eta denak premiamendu bidean sartuko dira.

VII. KAPITULUA

Errekurtsuak

57. artikulua. Ordenantzen behin betiko onespeneren kontra, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnetik hasita, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, udal ebazpenen aurka egiteko, oro har, aipatzen diren errekurtsuak aurkezten ahal dira.

58. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritakoagatik ere, indarrean egonen da beti interesatuen eskubidea, errekurtsua aurkezteko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean edo ordenantzetan ezarritakoa hausten duten ordainarazpenen gaineko xedapenak aplikatzen dituzten udal erabakien kontra, Udalaren ebazpenen kontrako errekurtsuak aurkezteko ezarrita dagoen prozedura orokorrari jarraikiz.

59. artikulua. Zergak ordaintzeko obligazioaren edo ordainarazpen bat dela-eta likidatutako kuota baten zenbatekoaren aurka errekurtsoren bat aurkezteko, exijitutako kopurua aurretik ordaintzerik ez da eskatuko, baina erreklamazioak ez du inolaz ere zor hori kobratzeko administrazioak egiten duena oztopatuko, interesatuak ez badu udal diruzaintzan uzten likidazioaren zenbatekoa, gehi ehuneko hogeita bortz, sor daitezkeen errekargu, kostu edo gastuak bermatu ahal izateko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betikoz onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak izanen, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN testua oso-osorik argitara ematen denean.

Bigarrena._Ordenantza fiskal orokor hau edo toki entitate honek onesten dituen ordenantza partikularrak aldatzeko, onespenerako egin diren tramite berberak eginen dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko hirugarren ataleko lehen kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena._Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan aplikagarri izanen dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta udal erabakiak baino goragoko xedapen guztiak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

1. ERANSKINA

TOKI ENTITATEEN JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK TASAK ORDAINARAZTEA (OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN ZERBITZUKO MAHAI, AULKI ETA MAHAITXOAK BESTEAK BESTE)

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluako 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Zerga honen egintza dira hiriko jabari publikoko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak, hala nola ostalaritzako establezimendu publikoen zerbitzuko mahai, aulki eta mahaitxoak besteak beste.

Ordaindu beharra

3. artikulua. Ordaindu beharra erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hastean sortzen da, eta aurretik behar den baimena eskatu behar da.

Udalaren nahitaezko lizentziarik aurretik izan gabe erabilera edo aprobetxamendua hasten bada, ordenantza fiskal honetan ezarritako tasa pagatzeak ez ditu izandako erabilera edo aprobetxamenduak legezkatuko eta kalte-ordainik eman gabe instalazioak kentzeko agindu daiteke.

Ordenantza honetako erabilera edo aprobetxamenduak tasaren aldian behingo sorrarazpena behar badu, hura urtarrilaren lehen izanen da urtero eta zergaldia urte naturala izanen da, salbu eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia urte hartan hasi edo bukatu egin den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita eta berdin kuota hainbanatuko.

Ordaintzera behartuak

4. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta, toki entitateko jabari publikoko zoru, hegalkin edo zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiten badute, edo hari onura ateratzen badiote.

Ez dute tasa ordaindu beharko ordenantza indarrean sartu baino lehen errenta prezioaren baitako ordenantzaren xede diren jarduketak eginen lituzketen udal zerbitzuen errentari edo kontzesiodunek.

Oinarriak, tasak eta tarifak

5. artikulua. Tarifak aplikatzeko oinarria zehaztuko da okupatutako eremu publikoaren azaleraren arabera. Zergaldi bakarra egonen da, urte batekoa.

6. artikulua. Tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

Lizitazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, tasaren zenbatekoa zehazteko, kontzesioa, baimena edo esleipena zein proposamenentzat egiten den, haren balio ekonomikoaren arabera finkatuko da.

7. artikulua. 1. Likidazioa udalak eginen du. Tasa lizentzia edo kontzesioa eman dela jakinarazi baino lehenago ordainduko da.

2. Udalak baimena bere osotasunean balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake arrazoi bidezko, obra, konponketa, eta abarrik badago, eta kobratutako tasaren zati proportzionala soilik itzultzera behartuta dago.

TARIFEN ERANSKINA

Mahaiak, aulkiak, mahaitxoak, barrak eta ostalaritzako jardueretarako bertze zenbait baimen, metro karratu edo zatiki bakoitzeko, urtean: 2 euro/metro koadroa.